

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 210. alea - 2016ko abuztua



San Rokeetan festa
alai gaude eta...



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

MARJE CASTRO IRIBAREN



- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPIZKOA) Fax: 943 192 482

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



ITXAS GAIN

Taberna

ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa: 943 192 576
20820 DEBA


Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhaitza

943 191 383
berriketan@zuhaitza.com




San Roke
jai zoriontsuak!



**erabili euskara
utiliza el euskera**

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

CURSO
16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak • clases de euskera



16-17 IKASTURTEA

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun asteen, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkatariak eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetzeta, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat
Matrikulaldia: irailaren 28ra arte
Langabetu, ikasle eta gurasoek,
Matrikula Erdia

Ikastaro amaieran BEKAK denentzat.
(Baldintzak betez gero)

Informa zaituz Udala Euskaltegiari!

DEBA: 10:00 – 12:30 / 17:00 – 19:30
DEBABA UDAL EUSKALTEGIA
Ifar Kalea, 12 – Tel.: 943 192 236

AURKIBIDEA

06

KOLABORAZIOAK

“Herpes-Zoster-en tratamendua: atxio-tea”; “Laurogei urte ondoren”

08

UDALEKUAK

Aurtengo Kolorez Blai udalekuetan ateratako irudien bilduma

12

ALBISTEAK

Martin Hernandez Beitiaren denboraldi bikaina, Gaztelekuko kideen ekimenak...

14

LITERATURA

Zuhatza Elkarteak eta Mendatak antolatutako literatur lehiaketako idazlanak

16

SAN ROKEAK

Herriko jaietan murgiltzeko prest gaude dagoeneko! Hona hemen egitaraua

Berriketan aldizkariaren hurrengo alea, urrian!

Esku artean daukazuen ale honekin agurtzen du *Berriketan* herri aldizkariak ikasturtea. Abuztuaren erdialdean oporrak hartuko ditugu erredakzioan, baita Zuhatza Euskara Elkartearen ere; hori dela eta, urtero bezala, irailean ez dela *Berriketan*-ik kale-ratuko gogorarazi nahi dizuegu. Hurrengo alea urrian plazaratuko dugu. Ordura arte agurtzen zaituztegu, beraz!

Aldi berean, lerro hauen bitartez, herriko festetan zein oporraldietan ondo pasatzea opa dizuegu. Eta, badakizue, irailetik aurrera izango dugu berriz ere elkarren berri, besteak beste, hitzordua jarrita baitugu Euskal Jaian. Ordura arte, ondo izan!

Berriketan



Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saihburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarteak

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Ander Salegi

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83


Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskatu ez ahaztu datu hauek jartztea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara:

Etorkizunaz hausnartzea garrantzitsua iruditzen zaigulako

Zuhatzakide agurgarria

Hogei urtetik gora izango dira debar talde batek Zuhatza Euskara Elkartea sortu genuela. Debako euskara erabileraz kezkatu, bi urtetako gogoeten ondoren eta hainbat hitzaldi eta soziolinguistikako ikastaro jaso ondoren sortu genuen. Handik urtebetera **Berriketan** herri aldizkaria etorri zen, eta urteak joan dira ohi-turak berreskuratzen laguntzen, mila lehiaketa, kultur emanaldi, hitzaldi antolatzen, edo mintzapraktika taldeak osatzen eta abar.

Baina hainbeste urte pasa ondoren, orduan egin genuen bezala, aurrera egiteko batzuetan geldiueneren bat izatea eta etorkizunaz hausnartzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Horrela, aur-

tengo urtea gogoetaren eta erantzunen urtea izatea nahiko genuke: etorkizuneari nondik jo, zer egin eta nola, definitu nahi du euskara elkarteak. Horiek izango dira galdera gakoak.

Horretarako, herriko euskaltzaleak bildu eta gaur egun euskarak eta euskalgintzak herrian bizi duten egoera aztertu nahi da, etorkizuneko helburu eta erronkak definitzeko. Nondik gatozen, nola eragin dugun, non gauden, nora eta nola joan nahi dugun adostu nahi dugu. **Gogoeta prozesua** udazkeneko hiru larunbatetan egingo da (urriaren 22an eta azaroaren 5ean eta 19an), eta elkarte dagoeneko hasita dago hori prestatzeko lehen urratsak ematen, Euskara Elkartearen Topaguneak lagunduta.

Gogoeta egitea elkarteari indarra, ilusioa eta haize berria ekartzeko aberasgarri eta baliagarri izango delakoan, udazkeneko hausnarketako hiru egun horietan parte hartzeko gonbidapena egiten dizugu.

Debako euskaltzaleak trinkotzeko euskararen erabileran eragiteko

Zuhatza Euskara Elkartea



Udalaren irizpideak



Harrituta nago Udal honek daraman ibilbidearekin. Ideiak eta lanak gauzatze-ko erabiltzen dituzten irizpideak ez ditut ulertzen. Iruditzen zait "a salto de mata" egiten dituztela gauzak.

Eta oraindik ez dakit zer herri mota nahi duten.

Ah! Bai! Irudi atsegina, lasaia, pozgarria, loretsua eta Mari Errauskinen herria



bezalakoa.

Baina, errealitatea zein da?

Arazoak daudela eta bizilagunen onerako konpondu egin behar direla. Adibidez:

-Hondartzako paretaren eztabaida.

-Eskailera mekanikoak. Enee!!!

Eskailera konpondu dituzte!! A ze poza!!

-Itsas Begiko farola zuhaitzaren



barruan dagoela.

-Itsas Begin kontainer bakarra dago!!

-Txakurrei buruzko eztabaida.

-Liburutegiari zenbat euro gutxiago eman diozue?

Ez al dago aurrekonturik?

Ah! Baina, hori bai, festetarako diru gehiago jarri duzue. Oso ondo...

Marian Larrañaga

...tutzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko.
...ara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Debarock Kolektiboaren adierazpena 2016ko jaietako kontzertuen inguruan

Debarock Kolektiboa 2008. urtean Debako musika taldeak bultzatu eta entsegu gela duin baten beharrari erantzuteko sortu genuen taldea da. Urteetan zehar egindako lanaren ondorioz, urte batzuk geroago Agirre Jauregiko entsegu gelak lortu genituen.

2011. urtean Debarock Kolektiboak jaietako kontzertuak lotzeko ardura hartu zuen, aurreko urteetako musika eredu irauli eta jai eredu herrikoi, parte-hartzaile eta euskaldunak bultzatzeko asmoz. Izan ere, ardura hori Debarock Kolektiboak hartu aurretik, azpikontratutako enpresa batek burutzen zuen zerbitzu hau; diru kopuru baten truke, noski.

Urtez urte egindako lanaren ondorioz, egungo euskal musikaren erreferentziazko taldeak izan ditugu gurean eta Deba Euskal Herriko kontzertu zaleen mapan kokatzea lortu dugu, herriko musika taldeei bultzada nabarmena emateaz gain.

Aurten, ordea, kontzertuak lotzeko eredu erabat aldatu da. Hasiera batean,

Udalak ez zigun bere asmoen inguruko informaziorik luzatu. Azkenean, maiatza bukaera aldean bilera bat egiteko deialdia jaso genuen. Bilera guztiz informatiboa izan zen guretzat, lehen kontaktu bat. Udalak, aldiz, jaietarako kontzertuen planteamendu egituratua zuen ordurako eta aste bateko epea eman zigun gure proposamenak gehitzeko. Halako denbora tartean nekez lotu daiteke musika talderik, are gutxiago musika talde gehienek hilabete askotako aurrerapenarekin lotu badituzte beren udako emanaldiak.

Hala ere, Debarock Kolektiboak abuztuaren 15eko kontzertuak eta 17ko Debako musika taldeen Bertsio Gaua lotzeko ardura hartu zuen.

Debarock Kolektiboak 1000 euroko laguntza jasoko du abuztuaren 17ko Debako musika taldeen Bertsio Gaua antolatzeagatik, entsegu gelen hobekuntza eta mantenurako joango dena. Beraz, emanaldi honetan parte hartuko duten herriko musika taldeek ez dute dirurik

kobratuko.

Hortaz, Debarock Kolektibotik argi utzi nahi dugu aurtengo kontzertuak lotzerako orduan gure eginkizuna bigarren plano batean utzi nahi izan dutela eta Udalak beste eredu baten aldeko apustua egin duela. Era berean, azken urte hauetan guztietan zehar jai eredu herrikoi, parte-hartzaile eta euskaldun baten alde egindako lana berresten dugu.

Debarock Kolektiboa herritar guztiei irekia dagoen taldea izanik, Bertsio Gauean parte hartzeko deialdia behar bezain irekia ez bada izan denbora arazoengatik izan da. Oztupoak oztopo, hainbat herritar batu eta sei taldeko egitaraua osatzea lortu dugu. Besterik gabe, abuztuaren 17an Txosna Gunean burutuko den Bertsio Gauera gonbidatzen zaituztegu.

Musika herrikoa, herritik eta herriarentzat!

DEBAROCK KOLEKTIBOA

Esan nezake gezurra

Esan nezake gezurra
Lege balitz iruzurra:
Euskaraz bizi naiz eta bera
Da nire bizkarrezurra.

Esan dezadan egia
Jada nabariegia:
Euskaraz bizi naizela gezur
Hutsa dela, alegia.

Jokin Lasa



ZOSTER HERPESaren tratamendua: atxiotea

Maia herritarren belar-sendabidea Zoster Herpes edo sugetxo gaitzarentzat



Maia Herria Guatemalan, Hondurasen eta Mexiko hegoaldean bizi da, eta, etxeko botikan, belarrei eta hitzari buruzko antzinako jakinduriaren altxorra daukate. Zoster Herpes gaitza sendatzeko atxiotea erabiltzea eta sufritzen ari den gaixoari entzuten jakitea dituzte horren adibide.

Zoster Herpesa *varicella-zoster*aren infekzio bat da, astanaferreria sortzen duenarena bera. Astanaferreria hartu eta gero, birusak sor egoeran irauten du gorputzeko nerbio batzuetan, eta, handik urteetara, birusa berriro bizkortzen denean agertzen da zosterrea. Edozein adin-arotan ager daiteke zosterrea, baina, gehiagotan 60 urtetik gora, urtea bete baino lehen astanaferreria jasan zutenengan eta sistema immunitarioa ahuldua dutenengan.

Hasierako sintomak, gehienetan, mina, txindurria, erredu-
ra, min-zorrotza izaten dira agertu behar duen tokian, ondoez bizia izateraino, batere erupzioerik azaldu baino lehen. Orban gorritzat bat sortzen da azalean eta, ondoren, baba txikiak; gero lehertzean zauri txiki bilakatu, lehortu eta, zarakar eginik, aste pare bat edo hirura erori egiten dira. Batzuetan sukar, hotzikara, neke, buruko-min eta urdaileko ondoezarekin hasten ere badaki, eta gripea ote den pentsatzera eramaten gaitu.

Bizkarrezurretik jaiotzen diren nerbioetan barrena agertzen da batez ere, baina, aurpegian, begietan, ahoan eta belarrietan ere bai. Begia ukitzen badu, larrialdietara jo behar da berehala, itsu geratzeko arriskua dakar eta. Gaitzak harrapatu duen tokian, hilabeteetan edo urteetan iraun dezakete minak eta berotasunak, eta, neuralgia postherpetikoa deitzen zaio horri. Zoster Herpesa bi edo hiru astean desagertzen da eta nekez agertzen da berriro. Zauriak eta hauen ingurua lehor eta garbi mantentzea garrantzi handikoa da, bai bakterioen infekzioa

ekiditeko eta bai azkarrago sendatzeko.

Erraz samar diagnostikatzen da, hartzen duen gorputz gunea eta oinaze mota nahiko bereziak baitira, eta, baba txikiak ateratzen direnean oraindik errazago. Bai gaixoak bai sendikoe-
ek baba txiki horiek ukitzea ekidin behar dute, horien gesala, birusa daramanez, kutsakorra baita; beraz, oso-oso kontuz ibili behar da azkurari aurre egin edo garbitzerakoan (erabiltzen ditugun toalla eta eskuzapiek).

Osakidetzak erabiltzen duen medikuntza alopaticoak badi-
tu bere erremedioak Zoster Herpesarentzat, baina, herri amerindiarrek ere sendatzen dute atxiote izeneko espezia baten bidez; koloregaitzat erabili ohi dute hau edo gaitza dagoen tokian zuzenean emanaz. Atxioteak izen asko ditu tokien arabera: *achote*, *bixina*, *acotillo*, *urucú* edo *onoto*, eta botanikan *Bixa orellanaes*. Askotariko onura terapeutikoak dituela uste dute, baina maien artean zoster herpesaren sendakuntzan erabiltzen dute gehienbat.

Atxiotea zuhaixka bat da eta bere hazia Karibeetan eta Hego Amerikan aurkitzen da. Zuhaixka txikia da eta hosto iraunkorra du; fruituak, berriz, kapsula gorri arantza-ilez jantziak ditu. Kapsula bakoitzak 10 hazitik 50 arte dauzka, 5 mm. luzekoak, kolorez gorri horiztak eta garratzak zaporez. Koloreztatzen erabili ohi dira gehienetan; Ekuadorreko Las Esmeraldas-eko indioek zeremonietan euren soinak margotzeko erabiltzen dituzte, eta, gehienetan tamalak, saltsak, zopak eta gisatuak koloreztatzen. Atxioteak xantofila eta karotenoide oxigenatua dauzka eta ona da osasunarentzat.

Non saltzen da atxiotea? Denda etno/etniko, lokutorio eta supermerkatu batzuetan.

Lukax Dorronsoro eta Jose Luis Albizu



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

LAUROGEI URTE ONDOREN

Aurten laurogei urte beteko dira Gerra Zibila piztu eta gure etxeko sukaldeetaraino sartu zela. Urte asko dira, alde batetik, bertan parte hartu zutenentzat; lekuko izan ziren gizon emakumeak joan zaizkigu eta beraiekin batera testigantza zuzenak duen indarra betirako isildu. Bakan batzuekin solasean aritzeko aukera izan nuenean, deigarriak egiten zitzaizkidan, hitz egiterakoan, inguruetara luzatzen zituzten begiradak. Norbait zelatan izango balute bezala jokatzeko zuten, batzuetan ahopeka, batez ere norbaiten izena aipatzen zutenean. Galtzaile izatearen zama itogarriak, gerra ondorengo erreprezio gogorak eta bizitutako izugarrikeria guztiak mutu bilakatu zituen asko eta asko, testigantzak eten eta hutsune bat eratuz. Isiltasunak estali zituen bizipen ugari, belaunaldi oso baten sufrikarioa ikusezina bilakatu. Gerraren gordinak orbain ilunak utzi zizkien, partekaezinak batzuetan. Historia liburuetan agertzen ez diren sentipenak gordeta joan zaizkigu gure artetik Maritxu, Karmen edo Jose Mari bezalako herritarrak, hori izan da gure galerarik handiena.

Urteurren guztiek bezala, hausnarketarako aukera aproposa eskaintzen digute laurogei urte hauek. Dokumentazio aldetik gero eta aberatsagoak dira eskura ditugun informazio iturriak: liburu, memoria, testigantza eta ikerketa ugariz beteta daude gure liburutegiak, ez da informazioa falta zaiguna. Edozeinen jakin-mina asetzeko nahi beste aukera daude gaur egun, internetetik hasita. Eibarren edo Elgetan urtero egiten dira ekitaldi eta irteera ugari, txalotzeko moduko ekimenak. Hala ere, gaia-

ren garrantziak bultzada sendoago baten beharra eskatzen duelakoan nago; gertatutakoa argitzeaz gain, izan dituen ondorioetan jarriko nituzke nik azpimarrak. Hiru urte luze iraun zuen militar kuadrilla batek hasitako altxamenduak gure aurreko belaunaldietan utzitako eragina

zuten eta besteak bizi osorako markaturik gelditu. Batzuk ezagunak eta etxekoak egiten zaizkigu, beste batzuk Ama Birjina bista ondoan daude lurperatuta, erori ziren toki berean, oraindik izenik gabe. Garaileak ere izan ditugu gure artean, etxe askotan bezala, sasoi batean harro ibili zirenak. Egindakoak eginak daude; gerraren "logika" basatiaren barruan, gizakiak zer-nolako izugarrikeriak egiteko gaitasuna duen, egunero baieztatzen dezakegun kontua da. Hala ere, errefuxiatu ilara luzeak telebistan ikusten ditugunean urrutiko kontuak balira bezala begiratzen diegu, mesfidantzaz, nahiz eta gure etxean bizitako sufrikario berdinetik ihesean datozen familiak izan. Gu ere errefuxiatuak izan ginen, gerratik ihesean joandakoak, laurogei urte igaro dira gertakari haietatik eta ez gara jabetu, gutxienez, gurekin eduki zuten jokatibide berbera izan beharko genukeela orain datozenean; gure gerran borrokatu eta galdu zutenei besteko errespetua zor zaielako.

Memoria hitza gora eta behera dabilkigun sasoi hauetan, Gerra Zibilaren kronikak ikasgai bihurtu eta eztabaidarako plaza bilakatzera behartzen gaituzte pasatako laurogei urte hauek. Erantzukizunen kontuak ukitu gabe jarraitzen du. Saiakerak egon diren arren, laurogei urte eta gero argitzeke dauden gai askori erantzun bat emateko borondateak bakarrik ez du balio, ekimen legegileak behar dira eta, hauek bultzatzeko, gertatutakoaren garrantzia beregain hartuko duen gizarte bat.

Xabier Laka



aztertzea behartzen gaitu; guregana ere iristen baitira eragin horiek.

Gertakari, data edo izen jakin batzuen zerrenda bat baino askoz ere konplexuagoak izan ziren kontu batzuez ari gara; sortu zuten etenaren tamainaz jabetzen saiatu beharko ginatke, urte gordin haiek bizi izan zituztenei benetako errekonozimendua emate aldera. Askok bizia galdu



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)





Kolorez Blai Udalekuak

Kaixo kaixo!

Laugarren urtez, uztailarekin batera giro onean amaitu dira Kolorez Blai udalekuak. Primeran pasatu dugu, egun askotan eguraldiak bizkarra eman badigu ere! Dena den, horrek ez ditu gure irriak eta hurrekin gozatzeko gogoak itzali! Dena primeran irten da eta oso pozik gaude, batez ere urtez urte gehiago garelako. Aurten 267 haur eta 16 begirale izan gara guztira! Hippi eguna, Batukada, San Roke dantza erraldoia... iji-ajaka, dantzan eta giro onean pasa dugu hilabetea! Mila esker bihotz-bihotzez hau guztia posible egiten duzuen guztioi! Ondo pasa oporrak eta datorren urtean, badakizue: gehiago eta askoz hobeto!!!!

Zuhatzta Euskara Elkarteko Kolore Anitz Aisialdi Taldea

*Kolore Anitzen gaude
Haur ta begirale
Kalejiran gabiltza
Denok kalez kale
Arroxa, berde, urdin
Daude hainbat talde
Animau ta apantau
Gu zuen zain gaude*

Doinua: "Astoa ikusi nuen"





Neandertalen arrastoak daude Praileaitz I kobazuloko bigarren sarreran ere

Harri gogorreko piezak eta animalien hezurak aurkitu dituzte azken indusketan

Praileaitz I haitzuloan egindako indusketa berriei esker, arkeologoen hipotesiak zuzen zeudela jakin da azken asteotan.

Kobazuloan lehendik aurkitutako material zaharrenak ezagutzen zen sARBIDE bakarretik sartu izana ezinezkoa zela uste zuen Xabier Peñalver Aranzadiko arkeologoak zuzentzen duen taldeak. Kobara sartzeko bigarren sARBIDE bat aurkitu zuten ikertzaileek 2014an. Iaz gune horretarako sARBIDEA garbitu zuten, eta aurten ikerketetan aritzeko aukera izan dute. Erdi Paleolitoan Moustier aldiraino atzera egiteko itxaropena zuten, eta hala izan da.

Ate berria aurkitu izanaren ondorioz, Praileaitz I koban orain arte aurkitutako material zaharrenen parekoak bildu dituzte aurtengo indusketan. "Neandertalen garaiko gizakien presentzia dokumentatu da, eta horren kronologiak 80.000 eta 100.000 urte bitarte egin dezake atzera", azaldu dute ohar batean.

Aurkikuntza berriei esker, haitzuloan izan zen giza presentziaren segida oso ondo osatuta dute arkeologoek. Erdi Paleolitoan hasi zen —orain dela 80.000-100.000 urte— eta Epipaleolitoraino iraun zuen, orain dela 8.000-9.000 urte. Garrantzi berezia du Behe Madeleine garaiak. Orain dela 15.500 urteko pintu-

rak eta harrizko pieza ugari aurkitu dituzte bertan.

Ahuntza, sarrtoa, oreina eta hartza

Bigarren sarrerari dagokion eremuak leku batzuetan bi metro eta erdiko zabalera du, eta maila ezberdin ugari ditu. Bost maila ikertu dituzte azken indusketan eta horietako azkenean lortu dute Erdi Paleolitoko materialak lurpetik ateratzea. Harri gogorarekin egindako industriak dira, eta animalien arrastoak aurkitu dituzte. "Batez ere ahuntzak, sarrtoak eta oreinak, baina baita hartzak ere", zehaztu dute.

Urrian jarraituko dute ikerketarekin.

Moda desfilea Myriam Martin diseinatzailearen jantziekin



Ander Salegi



Ander Salegi

Moda desfilea ikusgarria izan zen uztailaren 16an, Zumardiko kioskoan. Jendetza bertaratu zen hitzordura eta Myriam Martin diseinatzaile eta jostunaren jantziak ikusteko aukera izan zuten bertaratutakoek. Hemeretzi lagun aritu ziren modelo lanetan alfombra gorrian, 21 jantzi erakutsiz.

Eta, eszenaratzea dotoreagoa izan zedin, Kulunka Dantza Taldearen parte-hartzea izan zuen desfileak, baita zuzeneko musika ere.

Txalo zaparrada beroa jaso zuen Mendaron bizi den diseinatzaile eta jostun debarrak desfilearen amaieran.

ALBIZU
HARATEGIA

Larsundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Kanta eta dantza ugari Irrien Lagunekin



Irrien Lagunekin Kanta eta Dantza egiteko aukera izan zen uztailearen 12ko arratsaldean, Luzaro eskolako frontoian, Zuhatza Euskara Elkarteak antolatuta.

Ikuskizun parte-hartzaile batekin etorri ziren Martinbertso DJ, Largabista eta Marikalanbre Debara eta harrera beroa egin

zieten ikuskizunera hurbildutakoek. Kultura, osasuna, natura eta zientzia, haurrek aski ongi ezagutzen dituzten kanta eta dantzekin uztartu zituzten ordubetez luzatu zen emanaldian. Entzierro txiki batekin eman zioten amaiera jaialdiari.

Eskerrik asko bertaratutako guztiei!



Kartel lehiaketako irabazleak: Ander Salegi (hirugarren saria), Itziar Egidazu (lehenengoa) eta Itzale Laka -Ane Arrizabalagaren lanarekin- (bigarrena).

Badugu 2016ko Euskal Jaia iragartzeko kartela!

Datorren irailaren 24an (larunbata) ospatuko dugu garai berriko XIX. Euskal Jaia Deban. Uda garaian murgilduta gauden honetan, eta San Roke festen atarian gainera, urruti samar ikusten da oraindik ere ospakizuna, baina dagoeneko abian daude antolaketa lanak. Horren adibide da, adibidez, uztailean Zuhatza Euskara Elkarteak antolatu duen kartel lehiaketa.

Aurtengo edizioan lau lan aritu dira lehian. Lan guztiak uztailearen 29an egon ziren ikusgai plaza zaharrean, eta herritarrek bozka bidez hautatu zuten kartel irabazlea. Guztira 303 lagunek parte hartu zuten bozketan, eta 108 boto jasota irabazi du lehia Itziar Egidazuk (alboko argazkian erdian ageri da). Bigarren postuan Ane Arrizabalaga gelditu da (Itzale Lakak jaso zuen saria) eta Ander Salegik lortu du hirugarren saria.

Eskerrik asko bozketan parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, lanak aurkeztu dituzuenoi!

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

English Academy

NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Martin Hernandez Beitiak irabazi du Espainiako Atletismo txapelketa 600 metroan

Martin Hernandez Beitia gazteak 2015/2016 denboraldi bikaina burutu du atletismoan, Espainiako aire libreko txapelketa irabaziz 600 metroko proban.

Martinekin entrenatzaile lanetan aritzen den bere aita Juan Carlosen esanetan, ikasturte hasieran planteatutakoarekin lortu dute euren helburua. Izan ere, krosarekin hasi eta pista estaliarekin jarraituz, aire libreko pistan irabazleen podiumean egotea zen euren erronka, eta Martinek lortu du, bai, hirugarren saiakeran, aire libreko Espainiako Txapelketan lehen postuko urrezko domina eskuratu baitu 600 metroko proban.

Aurrez, gazte debarrak Gipuzkoako eta Euskadiko kros txapelketak irabazi zituen, eta 16. postua lortu zuen Espainiakoan. Pista estalian Euskadiko txapeldun izan zen 600 metroko proban eta txapeldunorde Espainiakoan (Oviedo) 1:25:20ko denborarekin, Antonio Carlos Fernandez Plata andaluziarraren ondoren 1:25:19, segundo-ehunen (zentezima) bateko aldearekin.

Denboraldiko helburua, lortuta

Aurtengo helburua lortu ahal izateko, urte osoa hori lan-tzen jardun dute Martinek eta bere aita Juan Carlos Hernandezek, Andoni Urkiola hezitzaile fisikoaren laguntzarekin. Eta entrenamenduz eta lasterketaz betetako urte honek eman du azkenik bere fruitua. Martinek bere berezko marka pertsonala hobetzea lortu zuen Granollersen (Espainiako aire libreko txapelketan) eta, horrez gain, kade-te mailan 600 metroan historian lortu den Espainiako hirugarren denborarik onena izan zen berea.

Uztailaren 13an, Tolosan 1000 metroan bere marka pertsonala (2:37:61) hobetzeko korrika egin zuen eta denbora 3 segundo jaitea lortu zuen (2:34:81), honekin Gipuzkoako errekorra lortuz.

Azkenik, Espainiako Atletismo Federazioak gonbitea luzatu zion Granadako kirolarientzako errendimendu



handiko zentro batean antolatutako lau eguneko kontzentrazio batean parte hartzeko.

Zalantzarik gabe, denboraldi bikaina aurtengoa.



Udan irteerak bai, eta bizi alai!!



Gaztelekuan uda topera hasteko, eskola amaitu bezain pronto, ETBko Gu ta Gutarrak saioa ikustera eta Zumaiara joan ginen egun pasa. Ekaina bukatu aurretik, Murillo de Gallego herrian izan ginen hydrospeed eta rafting egiten. Arcachoneko ur parkera ere egin dugu urteroko bisita, bertako atrakzio guztiez gozatuz. Ondoren, Donosti Cup txapelketan parte hartu dugu, nesken eta mutilen talde banarekin. Bi taldeak fin ibili dira eta azkenean neskak kon-



tsolazio fasean koparekin bueltatu dira!

Urteroko boleibol eta futbol txapelketa arrakastatsuak ere burutu ditugu eta, nola ez, Santa Klara irlara joan gara itsasontziz. Azkenik, Gaztelekuko DBH 4ko gazteekin Hondarribira eta Aritzalekura joan gara. Azken honetan Paddle Sup eta paddle-ean aritu gara jo eta su!! Lau belau-naldi, hamaika bizipen eta mila abentura!

Gaztelekuko hezitzaileak



Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa
Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

LITERATUR LANAK 2016

Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako literatur lehiaketan saritutako bi idazlan argitaratzen ditugu oraingoan. *Berriketan* aldizkariaren uztailleko alean lehenengo eta bigarren mailan lehen saria eskuratu duten lanek ikusi zuten argia, eta 3. eta 4. mailako ikasleen idazlan sarituak dituzue orain esku artean.

Hirugarren mailan Andoni Iburgurenek lortu du lehen saria eta Paula Iglesias izan da bigarrena. Janire Salegi nagusitu da laugarren mailan, eta Julia Roni eman dio epaimahaiak bigarren saria kategoria horretan. Aipatutako irabazleak alboko argazkian dituzue, Tomas Ramos irakaslearekin eta Zuhatza elkarteko Iñaki Elosuarekin.

KIOSKOKO LEKU EZKUTUA

Bazen behin Deban lagun koadrila bat. Koadrila lau lagunek osatzen zuten: Patxi, Joxe, Ander eta Gorka. Guztiek 13 urte zituzten eta DBH hasi berri zuten.

Patxiri futbola gustatzen zitzaion eta Amaiak-Bat futbol taldean zegoen infantiletan. Klasean nahiko nota onak ateratzen zituen. Kirolzalea eta eskuzabala zen. Neska guztiak beraz txora-txora eginda zeuden, baina berak ez zien batere kasurik egiten eta Patxi bere lagunekin bakarrik ibiltzen zen.

Joxe koadrilako mutilik alaiena zen eta natura asko gustatzen zitzaion. Larunbat goizero buelta bat ematera joaten zen mendira eta, ordu-bete mendian igaro ondoren, alai-alai itzultzen zen etxera. Animalienenganako indarkeriaren eta zezenketen oso kontra zegoen eta Debako festetan, San Roketan, zezenketaren bat zegoenean, bere kartelarekin joaten zen protestatzeraz.

Ander koadrilako alferrena zen. Denbora gehiena kalean pasatzen zuen eta, etxean zegoenean, ikasi edo etxeko lanak egin beharrean, Play Stationean jolasten zuen. Hala ere, eskolan ikasgai guztiak gaintitzen zituen eta bere lagunak harrituta uzten zituen. Lagunartean oso txistezalea zen, baina, egia esan, bere txistek oso txarrak ziren.

Koadrilako azken kidea Gorka zen. Gorka oso "frikia" zen eta denbora asko liburuak irakurtzen pasatzen zuen. Ordenagailuan, bideo-jokoetan jolastea ere gustatzen zitzaion eta baita musika entzutea ere. Hala eta guztiz ere, lagunekin irtezen zenean, oso ondo ibiltzen zen eta asko dibertitzen zen.

Ostiral arratsalde batean, eskola amaitu ondoren, lau lagunak zumardian gelditu ziren futboleant jolasteko. Ordubete futboleant ibili ondoren, denek nekatuta bukatu zuten, Patxi izan ezik. Ondoren, kioskoan eseri ziren eta beraien gauzez hitz egiten hasi ziren. Ander ikasurte hasieraz kezkatzen hasi zen; Patxi baloiarekin jolasten segitzen zuen; Joxe zumarrei begira

zegoen eta Gorka, ez zuen ezertarako indarrik eta, kioskoko zutabe baten kontra ezarri zen.

Orduan, komunera joatea erabaki zuten ura edatera eta pixa egitera. Normalean ez zuten kioskoko komunetara joan nahi izaten, oso usain txarra egoten baitzen, eta etxera joan arte itxaroten zuten komunera joateko, baina, arratsaldeko bost eta erdiak bakarrik zirenez, oraindik ez zuten etxera itzuli nahi. Komunetara iritsi zirenean, komunetako atea apurtuta zegoela ikusi zuten eta, espero zuten bezala, oso usain txarra zegoen.

Komunean pixa egin eta ura edaten zuten bitartean, Patxi baloiarekin jolasten segitzen zuen. Halako batean, indar gehiegirik jaurti zuen baloia eta, atean errebotatu ondoren, horman jo zuen. Orduan azulejo bat barrurantz sartu zen. Hori ikusita lagun denak Patxiarengana hurbildu ziren, zer gertatzen zen ikustera eta, bat-batean, horman ate txiki bat ireki zen. Denak harrituta gelditu ziren eta berehala atea ixten saiatu ziren, barruan zer zegoen begiratu gabe. Lau lagunak atetik tiraka hasi ziren hura ixteko, baina beraien indar guztiarekin tira egin arren ez zuten atea ixtea lortzen. Orduan, Gorkak pentsatu zuen atea azulejoan sakatuta irekitzen bazen, itxi ere hala egingo zela. Patxiri, Joxeri eta Anderri ate paretik kentzeko esan eta azulejoan sakatu zuen eta, berak pentsatu zuen bezala, atea itxi egin zen.

Atea ixtea lortu ondoren, korrika irten ziren, inork ikusi baino lehen alde egin nahi baitzuten. Ondoren, plazarantz abiatu ziren eta lagun bakoitza zulo hartan zer egon zitekeen pentsatzen hasi zen. Patxi pentsatzen zuen gerra zibilean sortutako tunel bat izango zela eta Deba beste herri batzuekin lotuko zutela tunel horiek. Joxek uste zuen kobazulo erraldoi bat izango zela eta kobazuloaren bukaeran altxor bat egongo zela. Anderri iruditzen zitzaion atari bat egongo zela bertan eta ataria zeharkatu ondoren, beste dimentsio batera joango litzatekeela. Azkenik, Gorkak pentsatzen zuen antzinaroan sortutako

liburutegi erraldoi bat egongo zela zuloan eta bertan liburu zahar pila bat egongo zela.

Etxera itzuli zirenean, ez zieten ezer esan beraien gurasoei eta beraien hipotesian sinesten jarraitu zuten. Aste osoan zehar ez zuten beste ezertaz hitz egin eta bakoitzak bere ideia defendatzen segitzen zuen. Azkenean, pentsatu zuten arrazoiz zeinek zuten jakiteko modu errazena bertara joatea zela. Horregatik, ostiral arratsaldean gelditu ziren bertara joateko eta Patxi linterna bat eramango zuela esan zuten.

Ostiral arratsaldean denak kioskoan batu ziren eta, pixka bat hitz egin ondoren, komunetara abiatu ziren. Komunek aurreko astean bezala jarraitzen zuten, ate puskatuarekin eta bere usain txarrekin. Baloiak jo zuen hormako azulejoetan sakatzen hasi ziren. Hainbat saiakera egin ondoren, Joxek azulejo egokia aurkitu zuen eta, hura sakatzean, atea ireki egin zen.

Lehenengo Patxi sartu zen, linterna zuelako. Ondoren, besteak sartu ziren. Beraiek espero ez bezala, atearan atzean gela txiki bat besterik ez zegoen eta gelaren erdian kaxa batzuk bakarrik zeuden. Kaxetara gerturatu eta ikusi zuten kaxa barruan poltsa batzuk zeudela eta poltsak hauts zuri batez beteta zeudela. Hasieran ez zekiten zer zen hauts zuri hura, baina orduan Anderrek esan zuen albistegietan agertzen ziren drogen oso antzekoa zela. Hori dela eta, polizia deitu zioten eta, hasieran poliziek sinetsi ez arren, azkenean polizia bat joan zen kioskora. Polizia, poltsak ikusi zituenean, harrituta gelditu zen eta lau lagunek etxera joateko esan zuten.

Hurrengo egunean egunkarian agertu zen Espainia mailan garrantzitsuenak ziren droga trafikatzailerak harrapatu zituztela Deban. Albistean jartzen zuten trafikatzailerak droga portutik sartzen zutela eta kioskoko komunetan gordetzen zutela. Gainera, jartzen zuten trafikatzailerak poliziaren lan gogorregatik harrapatu zituztela. Dirudienez, lau lagunek ez zen inor gogoratu.

ANDONI IBARGUREN (3. mailako lehen saria)



AHIZPATXO MAITEA

Eskutitz hau idaztea erabaki dut, aspaldi honetan elkar ikusi ez dugulako. Beno, edo besterik gabe faltan ikaragarri botatzen zaitudalako. Txikitako hainbat oroitzen ditut buruan baina, batez ere, horietan guztietan gehien hunkitzen nauena bat da, Zumardiko kioskoa.

Larunbat goiza zen, eguraldi aparta egiten zuen hondartza aldetik paseotxo bat emateko. Ni amaren eskua helduta nindoan eta zu, berriz, amaren besoetan. Hondartzara joan aurretik, Debako parkera joan ginen, eta hura izan zen Zumardiko kioskoa lehenengo aldiz ikusi genuen eguna. Ohitura bihurtu zen. Handitzen zindoazela, larunbatero gosaldia eta berehala, bertara joaten ginen jolastera. Hasieran amarekin, baina, urteak pasa ahala, eskutik heldu eta biok etxetik korrika bizian irteten ginen, eguzkia, euria, elurra edo txingorra ari bazuen ere, kontuan hartu gabe. Kioskoko eskailerak igotzen genituen eta gure irudimenak ez zuen denbora luzea behar martxan jartzeko. Gure panpinak gure seme-alabak ziren eta, noski, kioskoa gure etxea zen. Han ibiltzen ginen biok, gaua zela imajinatzen genuenean, lurtean etzanda gure panpinak beso artean hartuta. Jateko ordua zela imajinatzen genuenean, etxetik emandako platerekin panpinei jaten ematen genien; eskolako ordua zenean, irakaslearen papera egiten, korrika alde batetik bestera, kiosko hura gurea balitz bezala, barrez, negarrez noizbait min hartuko bage nu... Txikitako gauzak ziren, bai, baina zuk eta biok dakigu zein ederki pasatzen genituen larunbat goiz osoak, eguerdira arte. Ondo pentsatzen jarrita, zerbait balego txikitak zumardiko kioskoan gozarazten gintuen bezala gozaraziko eta hain zoriontsu egingo nindukeena... bai, hala ibiltzen nintzen, zoriontsu zure alboan.

Egunak pasa ziren, haien artean hainbat

larunbat, hilabeteak, urteak. Eta denborak aurrera egin ahala, gauzak berdin jarraitzen zuten. Hasieran panpinekin zen bezala, geroago gozoki dendara joan, eta bertan erositako pipak jaten pasatzen genuen goiza. Gauza batez edo beste batez hitz egiten. Ez zen jolas egiteko lekua bakarrik, barne-barneko sekretu eta egia guztiak esaten genizkion elkarri kiosko barruan, mutil kontuak ez baziren, arazoak, kezak... Zenbat besarkada eta aholku eman ote genizkion elkarri kioskoko lurtean eserita? Auskalo... Gure txoko kuttuna zen, gu geu benetan nolakoak ginen bertan ikusten genuen. Hura zen gure konfiantzazko lekua.

Biok bat egin gintuen leku hark, ezerk banandu ezin bagintu bezala. Baina noiz edo noiz gauzek aldaketa egiteko ordua izan behar zen. Ikasketak gero eta gogorragoak ziren, ordu gehiago behar genituen, egindako lagun berriekin edo mutilen batekin irteten hasi ginen eta gero eta denbora gutxiago pasatzen genuen elkarrekin, bai etxean, bai kioskoan. Eta gure harremana hozten zihola ikusten nuen. Lehen baino askoz ere eztabaida gehiago izaten genituen eta, noski, gero eta gogorragoak ziren.

Ikasketetan buru-belarri nenbilen eta, hemezortzi urte bete nituenean, zehazki aste bat geroago, kanpora joan nintzen ikastera. Faltan botako ez ninduzula pentsatzen joan nintzen, eta gure eztabaida gabe etxean bakea eta lasaitasuna igarriko zela. Eta hala bada, ez zait axola, baina nik egia esango dizut, beste inor eta beste ezer baino gehiago botatzen zaitudala faltan. Bai, hala da, nahiz eta han nintzen azken egunetan ez izan gure harremanaren zati ederrena, nire erdi bat falta zaidala sentitzen dut, ez dakit nola azaldu; zerbait, oso garrantzitsua den zerbait eta benetan behar dudana zerbait faltako banu bezala. Kanpoan bi urte eta erdi daramatzat,

maite dudana lurra atzean utzita. Nire gelan nago, baina zehazki begiak itxi eta berriro irekitzean, zumardiko kioskoa ikusten dut begien aurrean. Lurtean eserita banengo bezala, bere epeltasuna sentitzen, bere kolore berdea ikusten, inguruko natura usaintzen eta bi neskatxa ikusten ditut, bi ahizpa, beren panpinekin jolasean, beste izkina batean bi nerabe, pipa jaten elkarri kontu kontari. Horrenbeste botatzen dut hura faltan... honekin guztiarekin esan nahi dizudana da nire etxeratzeko garaia laster izango dela, berehala. Eta bueltan, lehenengo gauza, zumardiko kioskora biok joatea nahiko nuke. Duela urte batzuk geneukan harremana berreskuratu; izan ere, kioskora joateari laga genionean galdu genuen gure harreman sakon hura, eta badakit zumardiko kioskora itzultzean, berriro ere gu geu izango garela. Horixe bakarrik eskatuko dizut, haur edo nerabeak ginenean bezala, eskutik heldu eta berriro bi urte eta erdi hauetan galdu duguna berreskuratzen joan gaitezen. Besterik gabe, asko maite zaitut.

Zure ahizpa.

JANIRE SALEGI (4. mailako lehen saria)



Abuztuak

14

Festen hasiera

18:00: San Roke festen hasiera. Kanpai errepika eta udaletxeke balkoitik txupinazoa botako dute San Roke festei hasiera emateko. Ondoren, Debako Martxaren soinuarekin zapi gorria jantziko zaio San Rokeri.

Jarraian: Kalejira, banda, txistulari eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

19:30: Udalbatza elizara abiatuko da Alkate Soinua entzunez. Gure Kai Dantza Taldeak Erreberentzia eta Ezpata Dantza dantzatuko ditu. Ondoren, Hilarion Eslavaren salbea abestuko du Aitzuri Abesbatzak.

22:30: Danborrada Ozio-Bide Elkartearen eskutik.

01:00: Erromeria EZTEN GIRO taldearekin.

Abuztuak

15

Umeen eguna

09:30: Diana, Banda Gaztearekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

10:30: Entzierroa, umeentzako.

12:00: Kalejira Luzaro eskolatik. Plaza zaharrea San Roke Txiki agurtuko da, bertsoak kantatuz eta San Roke dantza dantzatuz.

Ondoren, desfilea plaza zaharretik zezen plazara.

12:30: Jaialdia: danborrada, herri kirolak, dantzak eta zezenak.

13:00: 2015eko abuztuaren letik aurrerago uztailearen 31ra bitarte jaiotako haurrei zapi gorria jarriko die alkateak udal pleno aretoan.

16:00: Puzgarriak (10 urte bitarte-koentzat), Simon Berasaluze plazan. **Puzgarri erraldoia** zezen plazan (10 urtetik gorakoentzat).

20:00: Umeen pilota partidak (finalak), Aldats pilotalekuan.

20:30: ALMA NAVARRA, plaza zaharrea.

23:30: Kontzertua, karpan: ANKHAR, BAD SOUND SYSTEM eta THE NEPHEWS.

Abuztuak

16

San Roke Eguna

07:00: Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganaduairekin.

09:30: Gure Kai Taldekoen Ezpata Dantza plaza zaharrea, San Rokeren irudiaren aurrean. Jarraian, Udalbatza beste herritar guztiakin batera ermitara igoko da prozesioan eta Meza Nagusia izango da. Ondoren, **Larrain Dantza** egingo da plaza zaharrea (Lizarrako Gaiteroekin eta erraldioen eta buruhandien konpartsarekin).

13:00: Aureskua Foruen Plazan, Gure Kai Dantza Taldearen eskutik. Ondoren, **enbolatuak** Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganaduairekin.

Jarraian: Kalejira Los Incansables txarangarekin, kaleetan zehar.

18:00: Bertso saioa karpan.

18:00: Umeentzako ekitaldia Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa, Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo eta La Ventana del Puerto ganadutegieta-ko idiskoekin. Ondoren, **enbolatuak** umeentzat.

Jarraian: Kalejira musika bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin (erraldoi eta buruhandien laguntzaz).

23:30: Su artifizialak hondartzan (Pirotecnia Zaragozana).

23:45: Kontzertua, karpan: A Santo De Qué eta Los Zigarros.

Abuztuak

17

Mariñel Eguna

06:30: Kardantxuloak Kantuan. Irteera plaza zaharretik.

10:30: Jorrai Dantza herriko kaleetan, Gure Kai dantza taldearen eta Kale Z Kale Txistularien eskutik.

12:30: Apar Festa, Simon Berasaluze plazan.

12:30: Bertsolariak, Kardantxuloak eta **EZK fanfarrea** kaleetan zehar.

14:30: Bazkaria.

17:00: Kalejira, Lizarrako Gaiteroak eta **ORIA** txarangarekin.

18:00: Entzierroa. Ondoren, gazte kuadrilen arteko **jokoak** plazan. Jarraian, **elektrotxarangarekin** kalejira.

23:00: Kontzertua, karpan: **Herriko Taldeekin Bertso Gaua:**

-Sutabelar (Su Ta Gar)
 -Hestupak (Hertzainak)
 -Petronorren lehoiak (Bizardunak)
 -Hamaika Lore (Erromeria)
 -Los Colilla (RIP, Eskorbuto, Cicatriz...)
 -Foottime Lovers (Rock taldeen bertsioak)

00:00: Larrain Dantza, plaza zaharrean.

Abuztuak

19

Azken eguna

07:00: Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganadurekin.

11:30: Aizkolariak (Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugerza) eta Lasto Altxatzea (Tubi eta Loiola), Simon Berasaluze plazan.

12:00: San Lorezoko Dantzanteen Kofradia (Iruñea), kaleetan zehar.

12:00: The Joselontxo's Txaranga, kaleetan zehar.

12:30: Iñaxio Perurena harrijasotzailea, plaza zaharrean.

13:00: Enbolatuak Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganadurekin.

13:30: Herri kirolak, Arakistain plazan.

Aizkolariak: Fausto Mugerza (bost metroko altueran) eta Irati Astondoa.

Txingak: Xanta Sousa.

18:00: Umeentzako jokoak, Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa: Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo eta La Ventana del Puerto ganadutegietako idiskoekin.

Ondoren: Erraldoi eta buruhandien Agurra plaza zaharrean, Debako Banda eta Lizarrako Gaiteroekin.

00:00: San Rokeren irudiari ohiturazko zapi gorria kenduko zaio.

Kanbo Eguna

07:00: Diana, Musika Bandarekin eta Lizarrako Gaiteroekin.

08:00: Entzierroa. Ondoren, enbolatuak Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganadurekin.

10:00: Artisau feriarene hasiera (15:00ak arte egongo da zabalik).

11:30: Jubilatuen elkartearen Udalak eskainitako hamaiketako hirugarren adinekoentzat. Trikitilariak arituko dira, eta bitartean arratsaldeko zezenketarako 9 sarrera bikoitz zozketatuko dira.

11:30: Txaranga eta Kanboko Dantza Taldea kaleetan zehar.

12:30: Enbolatuak Marqués de Sakaren (Lasturko zezenak) ganadurekin.

13:30: Kanboko ordezkarietako ongiatorria.

18:00: Umeentzat ekitaldia, Simon Berasaluze plazan.

18:00: Zezenketa: Tamameseko (Salamanca) Puerto de San Lorenzo eta La Ventana del Puerto ganadutegietako idiskoekin.

20:30: The Pushermen, plaza zaharrean.

23:00: Kontzertua, karpan: JOHN BERKHOUT eta GRISES.

SAN ROKE AK 2016

**Abuztuaren
14tik 19ra**



Aurtengo jaietako kartela duzue goikoa. Ana Salegi da egilea.

AGENDA

ABUZTUAK 14-19

-San Roke jaiak. Egitaraua aldizkari honetako 16. eta 17. orrialdeetan duzue.

ABUZTUAK 26, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

IRAILAK 2, OSTIRALA

-21:30. **"ZUEK"**, zinea, musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna. (Iturri ondoan).



IRAILAK 6

-San Nikolas jaiak Lasturren. Egitarau berezia egongo da.

IRAILAK 9, OSTIRALA

-**Helduen kontaktak.** Herriko ipuin kontalariak bi urte daramatzate ispiluen gelan umeentzako ipuinak kontatzen. Helduentzako kontaktarekin egingo dute proba orain. Agirre jauregian.

IRAILAK 10, LARUNBATA

-Kale margo lehiaketa.

IRAILAK 16, OSTIRALA

-21:30. **"Hiri asko bere baitan"**, zuzeneko emanaldia Aitzol Mugika eta Andoni Alonso musikariarekin eta Kepa Errasti aktorearekin. Musika, antzerkia, irudiak... (Iturri ondoan).

IRAILAK 23, OSTIRALA

-21:30. **"Begiradak 3"**. Herriko sortzaileek irudiak eta hitzak batuko dituzte, hirugarren urtez, ekitaldi honetan. Literatura, musika, dantza, irudiak... (Iturri ondoan).

Euskal Jaia 2016

Irailak 24, larunbata:

Egun osoko egitaraua izango da garai berriko XIX. Euskal Jaian eta dagoeneko badugu ospakizuna iragartzeko erabiliko den kartela (Itziar Egidazuk sortua, eta herritarrek bozka bidez hautatua).

Urtero legez, Euskal Jaian baserritarrez jantzi eta

euskal giroan murgiltzeko deia egingo zaie herritarrei.

Abuztuko festen eta oporren ostean ekingo die Jai Batzordeak iraileko hitzordua antolatze lanei. Beraz, adi! Guztion laguntza eta parte-hartzea ezinbestekoa izango da eta!



Debako XXXIII. Udako Musikaldia

Abuztuaren 25ean, Udako Musikaldia-ren baitan antolatutako azken kontzertua izango da:

***Musica Boscareccia ensembles:**

-Andoni Mercero eta Alexis Aguado (biolinak), Kepa Artetxe (biola) eta Mercedes Ruiz (txeloa).

Emanaldia elizako klaustroan burutuko da, iluntzeko 20:00etan.



Erakusketa

-**WILLY BERASALUZE** artistaren "Hutsuneak" erakusketa ikusteko aukera dago Santa Maria elizako klaustroan, irailaren 5a arte.



Udako ordutegia liburutegian

Ostolaza Udal Liburutegiari udako ordutegiarekin jarraitzen du.

*Liburutegi orokorra: astelehentik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Abuztuaren 15etik 19ra arteko astea itxita egongo da, herriko jaiak direla eta.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **abuztuak 19, 20, 21, 29, 30, 31.**
irailak 1, 16, 17, 18.

Burgoa Zuazo: **abuztuak 15, 16, 17, 18.**
irailak 2, 3, 4, 12, 13, 14, 15.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abuztuak 20 eta 27
irailak 17 eta 24

BURGOA ZUAZO: abuztuak 13 / irailak 3 eta 10

9:30 - 13:30



GENOVEVA
Arraindegia



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Aforiak: 20:00 / 23:00

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Hazirik
ZURE EKODENDA



San Roke Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

kutxabank
hemen
eta orain **k**


AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA



Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA
Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK



Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlo.si.net

API
Nº 379

Higiezin zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

ISABEL
FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA
943 029 186

MAZKUNE
FRUTA PRODUKAZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!

ARKATZA
Liburudenda



Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton
JATETXEA



Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.
LARRAMENDI
ANIAIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larraniaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

sasoi
eko-denda,
dietetika,
belardenda



ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersandi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

DEBAKO

euskaltzaleak trinkotzeko
euskararen erabileran eragiteko

BADATOR!



Debarrak
EUSKARAZ
BARRA-BARRA

Zuhotza
euskara elkarteak *deba*